

### Legatu apostolikoa

Titulu hori bereziki dagokio, aita santuak bere ordezkari gisa eginkizun garrantzizkoren bat betetzera (kontzilioaren edo kongresuren batean buru izatera, \*urte santuren bat irekitzera, etab.), eta huraxe betetzen duen aldirako, bere eskumenaz horniturik bidaltzen duenari.

Ik. Delegatu apostolikoa.

### Legea

Erljioa eta legea oso elkarturik daude, historiaurreko erlijioetatik hasi eta erlijio historiko handietaraino.

Kultura primitibo hainbateko mundu-ikuskeran ordena unibertsal kosmiko bakarraren kontzeptua oso bizia da: horren barruan sartzen dira izaki naturaz-gainekoak, mundua, gizartea eta giza bizitza. Lege kosmikoak, lege erritualak eta lege etikoak ere ordena bakar horren agerpideak besterik ez dira.

Unibertsismoa deritza mundu-ikuskerara horri. Funtsezko ordena unibertsal hori adierazten zuten antzinako egyptiarrek maat (= zuzentasuna; egia) hitzaren bidez. \*Veda-ren lehen garaian, funtsean ordena kosmiko sakratua zen rita --Varuna jainkoak zaintzen zuena--, lege etiko (satya = egia), erlijiozko eta erritual bihurtzen da gizon-emaumeentzat. Txinatar \*dao (= bidea) kontzeptua ere antzinako Txinako mundu-ikuskerako giltz-hitza da: munduaren eta biziaren betiko ordena adierazten du. Ik. Daoismoa.

Unibertsoaren mundu-ikuskerara hori erortzean, zuzenbidea, edo gizartea ordenatzeko legea, bereizi egiten da ordena kosmiko-erritualetik; zuzenbidearen eta etikaren artean jartzen da erlijioa, ordena juridiko-legalaren babesletzat, jainkozko jatorria ematen dionez. Hammurabi-k, zerutik jaitzitateko lege-bildumatzat ezartzen dio herriari bere kodea. Ik. Kosmosa; Etika eta erlijioa.

Erljio historiko handiak Jainkoagandiko lege sakratuarekin berdinu dira: horrelakoetan nabarmena \*judaismoa da, horren eratzaille Moise, funtsean legegiletzat hartzen bait dute; baina era berean, Indiako, Txinako, Greziako eta Erromako erlijioetan eta \*islamismoan legeko elementua oso nabarmena da. Horrela, Moise bezala, Buda, Zarathustra, Mahomet eta Jesus bera legegiletzat hartzen dituzte; Jainkoaren nahi juridikoa formulatzen bide dute.

\*Dharma hitz sanskritoak, \*hinduismoko kontzeptu nagusietakoak, erlijioa eta legea, biak adierazten ditu.

Ebanjelioaren arabera, Moiseren legearen

gainditzaille ez, betetzaille eta burutzailetzat agertzen da Jesus. Mezutzen duen Jainkoaren graziako Erreinuak gizon-emakumeen arteko maitasunean du bere egikaritzapen historikoa: maitasun hori, berriz, "legearen eta profeten" sintesia eta burutzapena da. Izatez, Lege Zaharraren (edo Itun Zaharraren) eta Lege Berriaren (Itun Berriaren) bereizkuntza egiten du S. Paulok, aurrekoa bigarreneko prestalditzat hartuz.

Maitasunaren (graziaren) eta legearen artean I.B.an bertan nabarmentzen den dialektikak Elizaren historian zehar iraungo du; eta legezaleen eta izpiritu-zaleen joerak \*kristautasunaren bi muturretan edo agertuko dira.

Erljioaren ete legearen arteko lotura teologiko, historiko eta semantiko horregatik, edozein erlijiotan \*lege-erlijio bihurtzeko, \*legekerira erortzeko arriskua nabari da, hori Jaingoagandiko lege-multzoz soiltzat hartuz.

Ik. Jainkozko Legea; Maitasuna; Grazi erlijioa; Lege-erlijioa; Antinomismoa.

Paulo Agirrebaltzategi

### Lege Berria

Ik. Itun Berria.

### Lege Zaharra

Ik. Itun Zaharra.

### Lege-erlijioa

Erljiokeretako bat da, legea eta horren gordetzea erlijiozko jokabide eta ihardunbidearen erdi-erdian ipintzen duena. Horrelakoetan legegilea da Jainkoa, eta erlijioaren eratzaillea, lege-irakaslea; erlijiodunak lege xeheki eta zintzo betez bizi du orduan bere jainkozaletasuna; \*legekeria deritza horrelako jokabideari, berorren okerrera adieraz.

Edozein erlijio profetikok du legekeriara makurtzeko joera: horrelako joera indartsua gertatu zen bereziki \*judaismoan, ebanjelioetan nabarmentzen eta gaitzesten denez. \*Islamismoan ere Koran-a zuzenbidearen iturrizat eta legegintzaren oinarritzat hartzen dute; baina horrek ez du derrigorrez legekeria adierazten. Erljio mistikoaren beste muturrean dago lege-erlijioa. Baina bi joerak batera bizi daitezke erlijio bereberko lagun edo talde ezberdinetan.

Ik. Legea; Erljio profetikoa; Erljio mistikoa; Antinomismoa.

### Legearen harlosak

Sin.: Elkargoaren harlosak; Legeko oholak